

e:

Ekonomia

**KRONIKA** > EMAKUME EKINTZAILEEI BURUZKO EZTABAIDA

# EMAKUME EKINTZAILEAK, MERKATUAREN LOGIKARI IHESI

**Maddi TXINTXURRETA**

**E**MAKUMEËKIN EMAKUME EKINTZAILEEN ELKARTEAK «GURE KONTURA: DIÁLOGOS CON PERSPECTIVA» IZENEN «ONLINE» SAIOA EGIN ZUEN ATZO. HIRU ELKARRIZKETA MULTZO IZAN ZITUEN ARDATZ EKITALDIK: EKITEKO MODUEI PRESTIGIOA EMATEKO BEHARRA, ERANTZUNKIDETASUNA ETA EKINTZAILETZAREN MUNDUAN DAGOEN SOLDATA ARRAKALA.

Ekintzailetzan esperientzia duten bederatzia emakumek, Miren Lauzirika EmakumeEkin elkarte zuzendariak gidatuta, "Gure kontura: Diálogos con perspectiva" izeneko *online* saioan izan ziren atzo, negozio bati ekiten emakumeek dituzten ozto-

poak gainditzeko estrategiak elkarbanatzen. Negozioaren kontzeptu klasikoaren mugak aztertu zituzten, egungo iruditerian nagusi diren enpresaburuen estereotipoak zalantzan jarriz eta arrakasta birdefinituz.

Lehenengo mahai birtualean izan ziren Marcelle Mardon arkitektoa eta gizarte-ekintzailea; Sonia Barrondo, Saskia Landa Ingurune Ekintzaileen eta Enpresaburuen Sarearen sortzaile-etako bat; eta Carla Peirano, Libertad Avenueren sortzailea.

Mardonek bere ibilbide aktibistan topatu dituen emakume ekintzaileen adibide batzuekin kokatu zuen eztabaida. Kontatu zuenez, Ugandan, bere hezkuntzagatik ordaintzeko aukerarik ez zuen neska gazte batek, «porrot egin zuela sentitu ordez», beste batzuei mikrokredituak emanda hezkuntzarako aukera eman zien. «Arrakasta zer den ulertzeko beste modu batzuk ere badaude», esan zuen.

Sonia Barrondok esan zuen Saskiaren helburuetako bat hazkunde pertsonala sustatzea dela, sinergiak bilatzea edo ema-

kume ekintzaileen artean negozioak sortzea. Bakarka eta taldean zaintzen dira Saskian. «Energia eta denbora badugu, proiektu bat egingo dugu, bestela ez», agertu zuen.

Bestalde, azpimarratu zuten emakume ekintzaileek izaten duten arazoetako bat dela konfiantzarik ez dutela beren produktu edo zerbitzuari prezioa jartzerakoan, eta saltzen dutena merkatuzera bultzatzen dituela horrek. Horregatik, Carla Peirano proiektu baten «ibilbidea baloratzea» deitu zuen, ez bakarrik azken emaitza, porrotak onartuz eta horiekin aurrera eginez.

**GENERO ARRAKALA**

«Enpresaren kontzeptuari prestigioa eman behar diogu, ez gara enpresaburu gisa identifikatzen», esan zuen Eraberria Guneko Malu Ziordiak, Izaskun Rama Zurekin Emakume Ekintzaileekin eta Idoia Postigo BM30eko zuzendariordearekin partekatu zuen eztabaidan. Hiru hizlari horiek estrategiak proposatu zituzten ekintzailetzaren munduan genero arrakala desagerrarazteko, eta, behin betiko formula lortu ez bazuten ere, bidea egiteko gako batzuk eman zituzten: komunitatea, ahalduntzea eta «amastera ausartzea».

June Fernandez Pikara Magazine aldizkariaren sustatzaileak; Izaskun Merodio, Ekonomisten Euskal Elkargoko Genero Batzordeko kideak; eta Evelyn Cazemayor, Lapurdiko Andere Nahia elkartearen kideak covid-19aren osasun-krisiak agerian utzitako arazo bati heldu zioten: zaintza eta produkzioa.

June Fernandezek gogorarazi zuen estatuek eta gizonek «aprobetxatu» egin dutela emakumeen doako lana, eta aldarrikatu zuen konfinamendua testuinguru egokia dela «politika publiko hobekak eskatzeko».

Izaskun Merodiok azpimarratu zuen ekonomia bezala ulertzen dugunaren «fokua zabaldu» behar dela, ekonomia produktiboa sostengatzen duten zaintza lanak aitortzeko.

Evelyn Cazemayor denborari buruz aritu zen: «Garrantzitsua da denboraren lapurrak identifikatzea, alferrikako energia kontsumitzen duen guztia. Eta garrantzitsua da inperfektuak gaitza onartzea». Beraz, orekari bilakatzea gomendatu zuen: «Denboraren antolaketan lan egitea denbora hobeto aprobetxatzeko».

EmakumeEkin elkarteak emandako formakuntza saioa. EMAKUMEËKIN

**Cazemayor:**  
«Garrantzitsua da denboraren lapurrak identifikatzea eta inperfektuak gaitza onartzea»